

BILBOKO ALDE ZAHARRA: TOKIKOAK, ARROTZAK

Bilboko Alde Zaharrak turismo masiboa jasotzen du urtero, eta horrek auzoko plangintzan eta auzotarren bizitzan eragiten du. Zer da turistifikazioa eta zein dira sortzen dituen arazoak?

Bilboko Alde Zaharreko kaleetan ibili denak ziur aski nabaritu du ehunka turista paseatzen direla bertatik. Horrez gain, seguruenik ohartu da zenbat denda eta etxebizitza dauden kanpotik etortzen direnak hartzeko egokিত. Hala ere, turismo masiboa jasotzen duen auzo honetan 7.000 biztanle ere bizi dira, 2016ko erroldaren¹ arabera. Haien ustez, bertakoen lehentasunak alboratuak izaten ari dira, turistei mesede egiteko. Fenomeno horri turistifikazioa esaten zaio.

Alde Zaharreko auzotarrak kezkatuta daude turistifikazioarekin, gero eta arazo larriagoak ikusten dituztelako Zazpikaleetan. Besteak beste, usaina, zarata eta etxebizitzaren prezioaren igoera pairatzen² dituzte bertan bizi direnak. Azkenaldian, turistifikazio prozesuaren ondorioak jasanezinak bihurtu dira, eta zenbait elkarte egoera salatu dute.

Zazpikaleetako Bihotzean auzo elkarteak eta AZET etxebizitza sindikatuak arazoari aurre egitera deitu dute. Euren arabera, Bilboko Alde Zaharrean turistek dute lehentasuna, eta ez bertako bizilagunek. Auzoa turisten beharrak asetzeko berregokitzen ari dela uste dute, horrela bertan jaio, hazi edo bizi direnak beste toki batera joatera bultzatuta.

Auzotarrek argi dute pisu turistikoen gehikuntza dela arazorik nagusietakoa. "Gure etxeak ez dira hotelak" aldarrikatu du Bihotzean elkarteak, eta turistentzako bizitokiak mugatzeko eskatu. Izan ere, SOS Alde Zaharra elkartearekin batera, auzotarren etxeak turistifikaziotik babesteko gida kaleratu du. Hiru pauso zehaztu dituzte: jabeen erkidegoko bilera egin, debeku neurriak bozkatu eta, akordioa eginez gero, erregistratu. Hala, Jabetza Horizontalaren Legeari esker, auzokideek pisu turistikoak mugatzeko aukera daukate.

Turistifikazioak dakartzan arazoak pil-pilean egon³ dira azkenaldian, eta ez Bilbon bakarrik. Abenduaren 12an, Espainiako Auzitegi Gorenak erabilera turistikorako etxeak alokatzea jarduera ekonomiko gisa sailkatu zuen. Horrek pisu turistikoak debekatzeko aukera ematen die auzoko bizilagunei, eraikineko estatutuetan jarduera ekonomikoak galarazita egonez gero.

Gero eta etxebizitza gehiago turismora bideratzen ari direla salatu du Bihotzean elkarteak, eta gero eta etxebizitza gutxiago dagoela auzotarrentzat. Ondorioz, pisuen prezioa garestitu egiten da, eta bertakoek, halako salneurriak ordaindu ezin dutenez, alde egin behar dute. Luxua al da jaio zaren tokian bizi ahal izatea?

Aizu aldizkaria, 2024ko martxoa (moldatua)

(1) errolda: *censo*; (2) pairatu: *sufritu*; (3) pil-pilean egon: oso bizirik, denon ahotan.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

• **1. ATALA**

1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *kaleetan* (3), *arazoari* (11), *elkartearekin* (17), *auzotarrentzat* (25). (puntu 1)

Ondoko bi ariketetatik, aukeratu bat: (2 puntu)

1.2.- Eman testuinguruan egokia den sinonimo bat: *kale* (3), *eurek* (12), *uste* (13), *toki* (13).

1.3.- Berridatzi esaldi hauek:

- "Bilboko Alde Zaharreko kaleetan ibili denak..." (3) (_____ -takoak)
- "... gero eta arazo larriagoak ikusten dituztelako..." (8) (_____ -eta)
- "... akordioa eginez gero, ..." (18) (_____ ba-...)
- "... halako salneurriak ordaindu ezin dutenez, ..." (25-26) (_____ bait-...)

• **2. ATALA (Bost galdera hauetatik, erantzun hiru)**

2.1.- Testuaren ulermena. Zer da turistifikazio fenomeno? (puntu 1)

2.2.- Testuaren ulermena. Turistifikazioa dela-eta, zer ondorio pairatzen dute Zazpikaleetako bizilagunek? (puntu 1)

2.3.- Testuaren ulermena. Agintarieki zeri ematen diote lehentasuna? (puntu 1)

2.4.- Testuaren ulermena. Zertan lagun dezake Jabetza Horizontalaren Legeak turistifikazioari aurre egiteko? (puntu 1)

2.5.- Testuaren ulermena. Zertan eragiten die turistifikazioak etxebizitza behar dutenei? (puntu 1)

• **3. ATALA**

3.1.- Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)